

GAIA: 2019-2020 DENBORALDIRAKO TALDE FEDERATUEN IZENA EMATEKO EPEA
NORENTZAT: GIPUZKOAKO SASKIBALOI ELKARTE GUZTIAK

Atsegin handiz jakinarazten dizuegu 2019-2020 denboraldirako GSFk antolatu dituen lehiaketetan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dagoela, eta ondoren zehazten den egunean bukatuko dela:

Senior, junior eta kadete errendimendu taldeak dituzten klubek, beraien taldeak <https://intrafeb.feb.es/oficinawebclub> webguneko “Oficina web de Clubes” plataformatik egin behar dute. Bertan erabiltzailea eta pasahitza sartu beharko dute. Inskripzioa egin ahal izateko, klubaren fitxa sartu beharko da plataforma berdinan. “Oficina Web”-eko eskuliburua GSF-ko webgunean, gisaski.eus, aurkitu dezakete.

Errendimenduko kadete taldeak Diputazioak taldeen inskripzio epea zabaltzen duenean, izenematea Foru Aldundiak duen sistema informatikoaren bitartez egin beharko da ere.

Partaidetzako kadete eta infantilen izen emateak, helburu hontarako Foru Aldundiak duen sistema informatikoaren bitartez egingo dira.

Klub Fitxaren datuak (derrigorrezkoak), GSFaren web orrian sartu behar dira, Klubak sarbidean – Klubaren datuak: Klubaren, lehendakariaren eta idazkariaren datuak bete edota berrikusi

☐ Lehiaketak: Probintziako gizonezko seniorren 1. eta 2. maila, emak seniorrak 1.maila, juniorrak, errendimenduko kadeteak:

2018ko uztailak 5 (13:30)

☐ Lehiaketak: Gizonezko seniorrak 3. maila, emakumezko seniorrak 2. maila, parte hartzeko juniorrak: **2018ko irailak 15.**

☐ Lehiaketak: Errendimenduko infantilak: **2018ko irailak 15, GSFan.**

☐ Lehiaketak: Parte hartzeko infantilak eta kadeteak: **2018ko irailak 15, Foru Aldundian, Internetez.**

UKO EGITEAK: Probintzialeko bigarren mailatik edota partaidetzatik errendimendura igo diren taldeak eta igoerari uko egin nahi diotenek, GSFra idatzi bat bidali beharko dute bere uko egitea adieraziz 2019ko ekainaren 30aren 19:00ak baino lehen. Uko egitea beranduago egiten bada, epez kanpo eginatzat hartuko da eta 150 euroko kanona ezarriko zaio. (Lehiaketa oinarrien 2.5 puntua)

BETE GABEKO LEKUAK: Honen bidez jakinarazten dizuegu lehen mailan edo errendimenduan jokatu nahi duten probintziako bigarren mailetako edota partaidetzako klubek **eskaera aurkeztu eta izen-ematea gauzatu beharko dutela uztailaren 4aren 13:00ak baino lehen.** Eskaera egin eta izen-ematea gauzatu duten taldeek beteko izango dute aukera lehen mailetan hutsik geratzen diren plazak betetzeko. Hori guztia Probintziako Lehiaketen Oinarrietako 2.6. puntuak, bete gabeko lekuei buruzkoa, ezarritakoaren arabera (ikus 2.6. puntua, bete gabeko lekuei buruzkoa, zirkular honen amaieran.)

KLUBAREN FITXA aurkeztu beharko dute elkarte guztiek, puntu guztiak behar bezala beteta eta Zuzendaritza Batzordea nork osatuko duten eta bakoitzak zer ardura izango duen adierazita eta izenpetuta. (GSFren webgunean eskura dezakezue inprimakia).

Epez kanpo iristen den izen-emate orririk ez da onartuko, ezta behar bezala beteta ez dagoenik ere.

2019ko uztailaren 4a baino lehen talde baten baino gehiagoren izena ematen duten elkarteek, eta talde horietakoren bati lehenbiziko mailan jokatzeari badagokio, izen-emate orrian adierazi beharko da zein taldek beteko duen leku hori.

GSFen IZENA EMATEKO KUOTA

Aurrerago adierazten diren taldeen izena emateko kuotak GSFren Batzar Nagusiak moldatu eta baieztatuko ditu, eta kasu horretan egin beharreko doikuntzak egingo dira, kontutan izan ez dugula ez Euskal Federazioaren ezta Espainiako Saskibaloia Federazioaren informaziorik, batez ere azkenengoarena.

Izena emateko kuotabank 2095 5009 73 1061453543 kontuan sartu beharko da, Kutzako edozein bulegotan. Ordainagiria eskatu behar da, gero **izen-emate orriarekin batera derrigorrez aurkezteko**, eta adierazi egin behar da zein elkartek egin duen diru-sarrera.

2019ko Ekainaren 30a baino lehenago Federazioarekin bere zorrak ordaindu gabe dituzten klubei ez zaizkie inskripzioak onartuta

IZENA EMATEKO KUOTAREN ZENBATEKOA

KATEGORIA	GSFren KUOTA
Seniorrak	350 Euro
Errendimenduko juniorrak (Lehen mailak+Euskadiko Liga)	220 Euro
Parte-hartzeko juniorrak (Bigarren mailak)	60 Euro
Errendimenduko kadeteak (Lehen mailak+Euskadiko Liga)	220 Euro
Parte-hartzeko kadeteak (Bigarren mailak)	60 Euro
Errendimenduko Infantilak	110 Euro
Parte-hartzeko Infantilak	60 Euro
Mini Errendimendua	33 Euro

2.6. HUTSIK DAUDEN PLAZAK

Lehiaketa itxietan plazaren bat geratzen bada hutsik, hura betetzeko eskaera epe barruan egiten duten taldeek beteko dute, hurrenkera honetan:

1. Maila bat beheragoko lehiaketan jokatzten duten taldeak.
2. Jaitsitako taldeak.

Plaza hutsik geratzen badira, GSFak erabakitzen duen izena emateko epea zabalduko da eta erabakiko du nork beteko dituen, bere irizpideen arabera, betiere aintzat harturik kirol meritua, geografia eta interes orokorra.